

ZEBARRI

etxebarriko euskaltegiako ikasleek egina

2011ko
uda



eta gainera...

*Gure umeak hemen hazi eta hezi
Oztopo arkitektoniko bat gutxiago
Bizkaieraren txokoa
Korrika 17 Etxebarrin
...eta abar*



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



AURKIBIDEA

ZEBARRI honetan

Alea Tita Konba	
Ume etorkinei euskararen erabileran laguntzeko programa	3-4
Gure umeak hemen hazi eta hezi	
Etxebarrik umeentzat duen eskaintza	5-6
Oztopo arkitektoniko bat gutxiago	7
Kirola parkean	
Etxebarriko parkeetan kirola egiteko jarri dituzten tresnak	8-9
Bizkaieraren txokoa	
Bizkaiko euskalkian sakontzeko atala.....	10-11
KORRIKA 17 Etxebarrin	12-13
Urteko argazkien bilduma	14-15
Etxebarritik Euskal Herrira	16-17
Internet ataria	18
KULTUR GOMENDIOAK	
Euskal musika	19
Euskal literatura	20
ERREZETAK	21-22
HOROSKOPOA	23-24
Animaliak bertsoan	25-26
Denborapasak	27



ZEBARRI aldizkaria zure etxean doan jaso nahi baduzu idatzi emailaz etxebarri@euskalnet.net helbidera

Zebarri aldizkaria honako erakundeei esker gauzatu da:



YLIBARRI
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

ALTA TITA KONBA

Izenburu honen atzean dagoena euskararekiko egitasmo bat da. Etxebarriko Udalak, Ulibarri euskaltegiarekin batera burututako ekintza, hain zuzen. Proiektu hau ikastetxeen eta Udalaren arteko elkarlanean oinarritzen da. Aisialdian haur etorkinekin erabiltzeko sortua da. Euskara ikasten ondo pasatzea lortu nahi dugu eta era berean haurrek ikasteko metodo erakargarri eta erabilgarria eskaintzea da. Etxebarri ikastetxeetako ikasleak dira eta jatorri ezberdinetako haurrek parte hartzen dute: argentinakoak, kolonbiakoak, paraguaykoak, marokokoak, madrildarrok, murtziakoak edo errumaniakoak dira.



Erabiltzen dugun metodologia jolasak eta tailerrak dira. Fitxen bidez, abestiak, filmak, jolas kooperatiboak eta abar, lantzen ditugu eta horrela umeei euskara era dibertigarri eta atsegin batean barneratzen dute. Haur eta lehen hezkuntzako umeei zuzenduta dago, talde bakoitzaren helburuak eta erronkak kontuan hartuta.



Ikasturte osoan zehar landu duguna, era dinamiko batean landu dugu; mugimenduaz baliatuta eta sormena ardatz garrantzitsua izanez, umeei aditzak, orduak, hiztegia, abestiak, jolasak ... ikasi dute. Etorri berriak direnez, Etxebarri ezagutu dugu, inguruko herriak eta baita bertoko kirol taldeak ere.



Azken finean lortu nahi duguna da, euskara naturaltasunez ikastea eta bere bizitzan uztartzea; horrela etorkizun hurbil batean euskaraz bizitzea lortu ahal izango dute.

Hona hemen aurtengo taldeen argazki pare bat:



kukuaren Tailerra

Azken hiru urteotan bezala, aurten ere KUKUaren tailerrak egin dira Etxebarrin, arrakasta handiz. Eguraldi ona izan genuen lagun eta ume eta guraso ugari bildu zen, besteak beste, Bekosolo Parkean, gurasoek umeei euskaraz egiten laguntzeko programa honetan.





GURE UMEAK HEMEN HAZI ETA HEZI

Etxebarri izugarri handitu da azken urteotan. Azken boladan umez beteta dago. Zorionez, udalak kontuan hartu du egoera. Izan ere, datorren ikasturterako eskola berria prest egongo da. Honetaz gain, haurreskola eta ikastola ere izango ditugu.

HAURRESKOLA

0 urtetik 2 urtera. Bekosolo parkean dago eta dagoeneko haurreskola berria antolatzen ari dira.

IKASTOLA

Orain dela bi urte sortu zen. Amezola kalean dago. Oraindik haurreskola moduan funtzionatzen du baina etorkizunean beste ikastetxe bat izango da.

Aisialdirako ekintzak

LUDOTEKA

6urtetik 10 urtera. Bi daude. Bata, San Antonioko Kultur Etxean eta bestea, Metakal kalean, metroaren ondoan.

TARRASTA

10urteik 14urtera. Marivi Iturbe kalean dago.
Besteak beste, hemen etxerako lanak egiteko aukera dago.



MUGARRI

14urtetik aurrera.

Ekintzak:

Ikastaroak, txangoak kontzertuak, tailerrak, hitzaldiak...



LIBURUTEGIA

Bata, San Antonion dago, Andaluzia kalean, eta bestea, Bekosolon eta aurten berritu dute.

Kiroldegia

Ezinbestekoa da gure umetxoentzat eskaintza ugari dago eta. Ikasketak ez dira gauza bakarra!

Bekosolo:



ITXAROPENA

Txalet larrosan dago. Pilates, karate eta aerobic...

ARTEALDE


Txalet "beige"ean dago. Margozteko ikastaroak, argazkilaritza ikastaroak eta abar.



SOINUZALE

Txalet urdinean dago. Musika eskola da ume zein helduentzat. Instrumentu desberdinak jotzen ikasten dute.

OZTOPO ARKITEKTONIKO BAT GUTXIAGO



Gure herrian, zorionez, gero eta gutxiago dira aurrerapenak eta eroso bizitzeko ditugun baldintzak. Hala ere, askotan ez gara konturatzen eskailera txiki bat pertsona batzuentzat oztopo gaindiezina izan daitekeela. Askok dira inguratzen gaituzten oztopo arkitektonikoak eta ahalik eta saiakera gehien egin behar dugu denok ezabatze aldera eta gustillo bideak errazteko.



Etxebarriko euskaltegiaren egoitza, eder-ederra bada ere, horrelako oztopo arkitektoniko ugari ditu, alde batetik bi solairuko etxetxo txikia delako eta, bestetik eraikin zaharra delako.



Pasa den hilabetean euskaltegiaren atarira heltzeko zeuden eskailerak ezabatzeko udalak pasagune bat eraiki du, Bekosoloko errepidetik. Txukun eta polit askoa da eta orain, esan dezakegun euskaltegia politagoa eta, bereziki, erosoagoa dela. Oraindik badago zer hobetu (komunak, adibidez), baina orain, esaterako, aukera dago gurpildun aulkia behar duen etxebarritarrek euskaltegian ikasteko.



Kirola parkean

Etxebarri herri lasaia da, eta lasaitasun horretaz gozatzeko hainbat leku eta txoko daude. Gure ustez parkeak eta landa berdeak baino hoberik ez dago pertsona batek atsedean hartzeko: Kukuiaga, Bekosolo,... horren adibide dira. Guztiok dakigu Etxebarriko parkeetan adin guztietako pertsonak biltzen direla. Haurrak, gurasoak, helduak,... guztiek dute lekua parkeetan.

Gainera, parke batzuk estali egin nahi dituzte eta pentsatzen dugu ideia ona dela, hurrek, euria egiten duenean, parkean jolastu ahalko dutelako.

Hala ere, Gaur egun parkeak haurrentzat ez ezik adineko pertsonentzat ere badira. Etxebarrin adineko pertsonentzat bi parke daude: bat, kiroldegiaren ondoan dagoena, San Antonion; bestea, metroaren ondoan dagoena. Parke hauetan ariketa fisikoa egiteko makinak daude.

Ondorioz, adineko pertsonak ez daukate aitzakiarik ariketa fisikoa ez egiteko.



Baina, zertarako balio du makina bakoitzak?

Kukuiaga parkean dagoen makina honek sorbalda lantzeko balio du.



Makina honekin eskumuturra lan dezakezu.



Hankak mugitzeko ere aukera dago.



Beraz, anima zaitetz parke hauetara hurbiltzen eta egin ariketa fisikoa. Osasunerako oso ona da eta zure gorputzak eskertuko du.

BIZKAIERAREN TXOKOA

ZEBARRI aldizkariaren ale honetan gure euskalkiaren hainbat ezaugarri dakartsueguz. Ezaugarriok orokorrak dira, baina ez dogu ahaztu behar tokian tokiko aldaerak dagozala. Izan be, gainerako euskalkiakaz jazoten dan lez, gureak be azpieuskalkiak daukaz.

DEKLINABIDEA

NORK / ZERK

Bizkaieraz singularra eta plurala ez dira bereiztuten batuan egiten dan legez. Halan:
Semeak egin dau (du) / **semeak** egin dabe (dute)

NORI / ZERI

Datiboak *-r* hartzen dau leku askotan:

Mikeleri (Mikeli) / Horreri (horri) / Aitorreri (Aitorri)

*** -i buruz erabili orde, *-en ganean* / *inguruan* erabilten da askotan.

NOGAZ / ZEGAZ

Seguru antzean, deklinabide kasu hau da bizkaieraren ezagunetariko bat. Kasu honetan, *-gaz erabilten da mugabakoan*; *-agaz* singularrean eta *-akaz* pluralean:

Zein lagunegaz? / Lagunagaz (lagunarekin) / Lagunakaz (lagunekin)

NORENTZAT / NORENTZAKO

Biak bardin erabilten badira be, oso ohikoa da bigarrenaren erabilera:
Opari hori zuretzako da.

NORGAITIK (NORGAITINO) / ZERGAITIK (ZERGAITINO)

Nigaitik (nigaitino) / hagaitik / semeagaitik (singularrean)
Etxekoakaitik / zuekaitik (pluralean)

NORANTZ

Askotan NORANTZA be erabilten da:

Etixerantz / Bilborantz

NOGAN / NOGANA / NOGANDIK

Bizkaierak *-agan*, *-agandik*, *-agana* singularrean, eta *-akan*, *-akandik*, *-akana* pluralean egiten dau:

Alabeagan / Emazteagana / Umeakandik.

LEXIKOA

Bizkaieraz erabilten doguzan hainbar berba, batzuetan beste euskalkietan erabilten diranen aldaerak baino ez dira:

Arpegi (aurpegi)	Atara (atera)	Bakotx (bakoitz)	Baltz (beltz)
Bardin (berdin)	Barri (berri)	Bedar (belar)	Bildur (beldur)
Edur (elur)	Emon (eman)	Erabagi (erabaki)	Eretxi (iritzi)
Frakak (prakak)	Gatx (gaitz)	Gitxi (gutxi)	Guzur (gezur)
Haretx (haritz)	Ifini/Imini (ipini)	Iketz (ikatz)	Ikutu (ukitu)
Intxur (intxaur)	Itxi (utzi)	Izakera (izaera)	Noz (noiz)
Txarri (txerri)	Ule (ile)	Urten (irten)	Usin (usain)

Baina bizkaierak badauka berea dan lexikoa:

Aitaxe / amaxe	Aitita / aitite	Alboan	Amata(t)u
A(ra)zo (eginazo, etorriazo)	Arean	Arrakadak	Arrankari
Barik	Be(re)	Behar egin	Berba (egin)
Bialdu	Boronpil	Buzkantz	Ebagi
Erdu	Eroan	Goatu /Oratu	Gura/e (izan)
Isi(o)tu / Ixetu	Jagon	Jausi	Jazo
Lantzean (behin)	Lar / Larregi	Legez (lez)	Lei
Ostendu (ostondu)	Ostera	Ostu	Sama

Asteko egunak be, *astelehena* salbu, ezbardinak dira; gauza bera jazoten da hil eta urtaro batzuakaz:

Astlehena Martitzena Eguaztena Eguena Barikua Zapatua Domeka

Urtarrila Zezeila Martia Jorrraila Maiatza Bagila
Garagarrrila Agorrrila Iraila Urria Zemendia Gabonila

Udabarria Uda Udagoiena Negua

Lexikoagaz gabilzala, bizkaieraz ezaguna da berben amaiera aldatuteko dagoan joerea. Halan, askotan, *-a* artikulua *-e* egiten dogu:

Mutile Ure Handie Txikie Gorrie

Bestalde, *-a* organikoa daukien berbakaz *-ea* egiten dogu askotan, baina, normalean, singularrean bakarrik:

Neskea / Gauzea / Alabea / Berbea/ Zaratea / Izakerea / Samea

Hauxe da dana oraingoz! Orain zuon txanda da.

Animau eta hurreratu zaiteze bizkaierara!

korrika 2011

Askok dakizuenez, KORRIKA iritsi zen Etxebarrira apirilaren 15ean eta festa handia eduki genuen herrian: antzerkiak, kontzertuak eta giro ederra. Aurten euskaltegiko jubilatuei egin zaie omenaldia eta hortaz, Jose Luisek, Virginiak, Pilik eta Mariluzek parte hartu dute.

Lehenengo biek eraman dute lekukoa eta esperientzia zer moduzkoa izan zen jakiteko elkarrizketa txiki bat egin diegu:

ZEBARRI: Zer moduz bizi duzue aurten KORRIKA?

Virginia: *esperientzia polita izan da. Giro ona, jende asko animatu da eta herrian giro bizia egon da. Eguraldiak ere lagundu du.*

Jose Luis: *Oso ondo. Jende asko hurbildu da ikustera eta parte hartzera. Gainera, oso puntualak izan ziren eta ez genuen asko itxaron behar izan.*



Urduritasuna lekukoari heldu aurretik

Oso nekatuta heldu zineten?

V: Bai, nekatu nintzen, aldapa txikia zen eta nabaritu dut.

JL: Ez, ni ondo sentitu nintzen.

Urduri zeundeten hasi baino lehen?

V: Ez, laguntza handia eduki dugu atzetik eta ilusio handia egin dit jendeak animoak ematen egoteak.

JL: ez, ez nintzen batere urduri. Eta gero korrika hastean atzetik zetorren jendeak animoak ematen zizkigun.

Zer esan dute familiakoek eta lagunek?

V: Oso pozik egon dira.

JL: Niri animoak eman dizkirate.



Virginia eta Jose Luis

...eta hurrengo edizioan zer? Parte hartuko duzue berri?

V: Bai, baina oraindik asko falta da! bi urte!

JL: Bai, esperientzia oso ona izan da.



17. ^{æk} korrika
TREBIÑU-DONOSTIA 2011ko apirilaren 7tik 17ra



*Korrika Etxebarrin barna
(argipeanklik taldearen argazkiak)*

URTEKO ARGAZKIEN BILDUMA

Amaitzear dagoen ikasturte honek
irudi polit hauek utzi dizkigu:



Abenduan Felix
Mugurutzza
izan genuen
euskaltegian,
gabonen inguruko
ohiturak azaltzen



Inauteriak ospatu genituen eta ikasle zein irakasleak, artero bezala, beren
mozorrorik politenak ekarri zituzten





Sagardotegirako txangoa ere egin genuen, baina sagardoaren historia eta prestaketaz ere asko ikasi genuen

Korrika eguneko argazki gehiago



Sukaldarien taldea



Eta bosgarren urte, euskaltegiaren jaia ospatu genuen maiatzaren azken ostegunean. Aurten euria nagusi izan den arren ondo pasatzeko aukera izan genuen





Etxebarritik Euskal Herrira



BERMEO

Guardiako txangoa atzean utzita, oraingoan beste proposamen bat egitera gatoz. Gure hurrengo helmuga Bermeo izango da. Bermeo, Bizkaiko kostaldean dagoen herri arrantzalea da. Bilboko portua eta gero, Bermeoko portua da Bizkaiko arrantzaren puntu garrantzitsuenetakoa.

Bermeo, Urdaibai eskualdean dago, zehazki Bakio eta Mundaka herrien artean. Etxebarritik Bermeora, gutxi gora-behera, 40 kilometro daude.



Bermeora joanez gero, derrigorrezkoa da Arrantzaleen Museoa ikustea. Bertan, herritarren historia agertzen da eta Bermeoko historia hobeto ulertzeko balio du.

Bestalde, Bermeotik hurbil, Gaztelugatxeko San Juan ermita dago. Ikusgarria benetan!




Bermeoko portua

Teilaren pasadizoa

Urtero, uztailaren 22an, Magdalena eguna ospatzen da Bermeon. Tradizioak zera esaten du: Bermeo eta Mundaka herriek borroka izan zutela, Izaro uhartea norena zen erabakitzeko. Horretarako, estropada bat egin zuten bi herrietako traineruek. Lehiaketa horretarako epaile bat aukeratu zuten: Elantxobe. Estropada Bermeok irabazi zuen eta Izaro berarentzat izan zen.

Horrenbestez, urtero-urtero, uztailaren 22an, Bermeoko alkateak teila bat botatzen du Izaroko uretara eta uhartea beraiena dela aldarrikatzeko honako hitz hauek esaten ditu: "Honaino zabaltzen dira Bermeoko itxuginak".



Bermeoko Izaro Uhartea






INTERNET ATARIA

www.berriketan.info

Azken teknologien esparruan inork ez du atzean geratu nahi. Jadanik egunkari guztiek dituzte edizio digitalak eta, gainera, gaur egun oso inportantea da irakurleak modu aktiboan parte hartzea. Horregatik ari dira hain arrakastatsuak izaten facebook eta twitter bezalako plataformak. BERRIA egunkariak badu bere sare soziala eta **berriketan** du izena, mezu azkarrak eta euskaraz idatzi eta irakurri nahi duenarentzat ezin aproposagoa. Twitterren antzeko erabilera dauka.



Bestetik, eta euskarazko informazioaren zale denarentzat, ezin dugu gomendatu gabe utzi SUSTATU.COM ataria, teknologia eta internet-i buruzko informazioaz gain orotariko albiste interesgarriak egunero, etengabe.



EUSKAL MUSIKAOC

BI (*Mursego*)



Ezusteko BAT arrakastatsuen ondoren Maite Arroitauregi cello-jotzaileak Euskal Herriko eta Euskal Herrikan kanpoko txoko guztiak astindu ditu, celloa, ahotsa eta hainbat musika-tresna erabiliz, tentsioa, umorea, casiotone erritmo dantzagarriak eta esperientzia uztartuz, aspaldiko pop proposamenen erakargarritza lortzeko. Izango al dugu Etxebarrin ikusteko aukerarik?
BIDEHUTS kolektiboarekin argitaratu du bigarren disko eder hau.

ETA TIRA ETA TUMBA (*Joseba Tapia*)



Eta Mursegorena bezain ederra da Joseba Tapia Lasarteko trikiti-jole beteranoak osatu duen azken diskoa: bigarren guda karlistan idatzitako testuekin sortutako kantu berriak. Tapiarengan ohikoa denez, ez da hau trikitixa disko arrunt bat, ez kantuen egiturei dagokienez, ezta sonoritateari dagokionez ere: trikitixa oinarria bada ere, haize-talde bikaina du atzean, tronpeta, saxoa, tuba...zuzenean Karliten garaira garraiatzen gaituztenak gaur egungo tren batean.

EUSKAL LITERATURA



Biodiskografiak (*Iban Zaldúa*)

Orrialde hau literaturari eskaintzen diogun arren, musika du abiapuntu Iban Zaldúa Gasteiztarraren ipuin bilduma hau. Bere bizitzako 38 disko hartuta beste hainbeste ipuin sortu ditu. Gehienbat pop ingelesezko diskoak dira aukeratutakoak, baina, bere esanetan, diskoak, asko gustatzen zaizkion arren, ipuinak sortzeko aitzakia baino ez dira.



Txakur ingelesak (*Lutxo Egiak*)

Bederatzi ipuineko bilduma da **Txakur Ingelesak** Lutxo Egiak aurkeztu berri duena. Jendartean ikusezin bihurtu diren edo mundutik desagertzeko erabakia hartu duten pertsonaiak bizi dira orrialde hauetan: ihesi, ezkutuan, alderrai, deitura aldatuta, oharkabea, lanbro artean. Irakurri ahala desegin egiten diren biografietako hitzak eta itzalak dirudite Lutxo Egiaren kontakizunek. Liburu berri honetaz gain, oso gomendagarriak bilbotarraren bi eleberri zaharrago hauek:

- **"Paperezko hegazkinak"** (2002, Susa)
- **"Ezker hanka falta zuen"** (2005, Susa).



OILASKO-BULARKI BETEAK

Osagaiak:

- | | |
|------------------------------|--------------|
| - kilo bat oilasko-bularkiak | - olio |
| -150g urdaiazpiko | - esnea |
| -150 g gazta | - tipula bat |
| -150g perretxiko | - gatza |
| - gurina | - baratxuri |

- Lehenengo perretxikoak tipularekin eta baratxuriekin zartaginean salteatzen ditugu. Hau guztia gorde egiten dugu.
- Zartagina berean olio a gurina eta esnearekin nahasten ditugu bexamela egin arte.
- Oilasko-bularkiak irekitzen ditugu eta perretxikoak eta urdaiazpiko eta gazta barruan ipintzen ditugu. Gero biltzen ditugu eta sokarekin elkartzen ditugu.
- Azkenean oilasko-bularkien gainean bexamela botatzen dugu. Labean 180 gradutara uzten ditugu 35 minutu eta prest dago dastatzeko!

LIMOI TARTA

Osagaiak:

- | | |
|--------------------------------|--|
| - Maria gailetakoko pakete bat | - ontzi txikia esne kondentsatua |
| - Ur baso erdi ardo gozoa | - 2 limoien zukua |
| - 80 g gurin | - limoi azal birrinduaren koilarakada txikia |
| - 3 arrautza handiak | - 2 koilarakada txiki azukre |

- Ontzi batean gailetak txikitzen ditugu.
- Gailetak, gurina eta ardoa elkartu eta nahastu.
- Molde bat hartzen dugu eta nahasketarekin molde a betetzen dugu, bai hondoan bai alboan.
- Gorringoak banatzen ditugu eta zukuarekin eta limoi azal birrinduekin nahasten ditugu, baina irabiatu gabe.
- Gero beste ontzian zuringoak elur punturaino irabiatzen ditugu eta azukrearekin nahastu.
- Labea berotzen dugu 180 gradutara gutxi gora behera
- Tarta barrura sartu eta 25 minutu uzten dugu bero suabea. Azken 5 minututan igoko dugu tenperatura. Labetik atera, hozten utzi eta badago!



AŠTEBURUKO MENUA



“JAUNT XOAREN” PAELLA (ESKUAK EZ ZIKINTZEKO)

Osagaiak:

- | | |
|----------------------------|---|
| - 2 edalontzi arroz | - kilo erdi txipiroi (garbi eta zatituta) |
| - kilo erdi txirla | - kilo erdi muskuilu (oskola gabe) |
| - 4 edalontzi ur edo salda | - tipula bat |
| - 24 otarrainxka | - baratxuri bat |
| - piper gorria | |

- Lapiko batean, olio a sutan jarri eta tipula, baratxuria eta piper gorria botatzen dugu, dena ondo txikituta.
- Olioztatu ondoren, txipiroiak bota eta dena nahasten dugu.
- Arroza bota eta egosten ari den bitartean otarrainxkak zuritzen ditugu.
- Bukatzeko, arrozari 5 minutu falta zaionean, otarrainxka, muskuilu eta txirlak botatzen ditugu.
- Egosita dagoenean, kendu sutik eta 5 minutu utzi jan baino lehen. Eta on egin!

TORTITAK TXOKOLATEAREKIN

Osagaiak

- | | | |
|------------------------|------------------------------|--------------|
| - 3 arrautza | - Royal (pixka bat bakarrik) | - txokolatea |
| - 6 koilarakada azukre | - edalontzi bat esne | |
| - 2 koilarakada olio | - edalontzi bat irin | |

- Osagai guztiak ondo irabiatu behar dituzu eta gero poliki-poliki bota zartaginean.
- Horrela lortuko duzu tortitak.
- Ontzi batean txokolate-ontza bota behar duzu eta esnea poliki-poliki bota behar duzu ondo nahastu arte. Sutan jarri eta txokolate saltsa gozoa aterako zaizu.
- Gero txokolatea tortiten gainean bota eta goza ezazu!!!





ARIES

(Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)

Amodioa: Datorren egunetan izugarri egongo zara, aprobetxatu!

Dirua: Kontuz diruarekin, oporrak laster helduko dira.

Osasuna: Zure bihotza zaindu behar duzu.

Asteko eguna: Osteguna.



TAURUS

(Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)

Amodioa: Pertsona ezkorrengandik alde egin!

Dirua: Zaindu zure lana, dirurik ez falta izateko.

Osasuna: Gogoratu, hogeita hamar minutu egunero ibili behar duzula.

Asteko eguna: Asteazkena.



GEMINI

(Maiatzaren 21etik Ekainaren 20ra)

Amodioa: Familia topaketa antolatu ahal duzu, oso ona izango da zuretzat.

Dirua: Kasino batera joan zaitez, zortea izango duzu.

Osasuna: Estresa ahaz ezazu, gozatu memento labur horiek!

Asteko eguna: Ostirala.



CANCER

(Ekainaren 21etik Uztailaren 20ra)

Amodioa: Aspaldiko lagun batengan amodioa aurkitu ahal duzu.

Dirua: Ustekabeko dirua jasoko duzu, erabili ondo!

Osasuna: Utzi tabakoa eta alkohola.

Asteko eguna: Larunbata.



LEO

(Uztailaren 21etik Abuztuaren 20ra.)

Amodioa: Memento ona pasatzen ari zara baina kontuz lagun horrekin.

Dirua: Ez ezazu loterian jokatzure lana galduko duzu.

Osasuna: Komenigarria da edari hotzak ez edatea.

Asteko eguna: Asteazkena.



VIRGO

(Abuztuaren 21etik Irailaren 20ra)

Amodioa: Kontuz! zure bikoteak engainatuko zaitu!

Dirua: Zorte ona izango duzu jokoekin.

Osasuna: Atsedean hartu behar izango duzu, joan bainuetxera!

Asteko eguna: Ostirala.



LIBRA

(Irailaren 21etik Urriaren 20ra.)

Amodioa: Lanean ligatuko duzu, animo!

Dirua: Zure senar edo emaztearen dirua gastatu behar duzu.

Osasuna: Segi aurrera, zure gorputza zaindu! mutil katxarroa zara!



SCORPIUS

(Urriaren 21etik Azaroaren 20ra)

Amodioa: Zuretzat memento sutsua da, aprobetxatu!

Dirua: Buruko mina edukiko duzu alkohola edateagatik, kontuz!

Osasuna: Lan ona aurkituko duzu, anima zaitez!

Asteko eguna: Larunbata.



SAGITARIUS

(Azaroaren 21etik Abenduaren 20ra)

Amodioa: Laster zorte ona edukiko duzu amodioan.

Dirua: Laster ustekabeko dirua jasoko duzu.

Osasuna: Komenigarria da kirola egitea zure osasunerako ona delako.

Asteko eguna: Ostirala.



CAPRICORNIUS

(Abenduaren 21etik Urtarrilaren 20ra.)

Amodioa: Lagun on batek kale egingo dizu.

Dirua: Zorte txarra jokoan. Dirua aurrezteko garaia da!

Osasuna: Bizkarra zaindu behar duzu.

Asteko eguna: Astelehena.



AQUARIUS

(Urtarrilaren 21etik Otsailaren 20ra)

Amodioa: Norbaitek sorpresa atsegin bat emango dizu.

Dirua: Lagun batek zure arazoekin lagunduko dizu.

Osasuna: Barazkiak jan behar dituzu, zure gorputzak eskertuko du.

Asteko eguna: Larunbata.



PISCIS

(Otsailaren 21etik Martxoaren 20ra)

Amodioa: Zure bikotearekin amodioa egin behar duzu.

Dirua: Dirua laster helduko da.

Osasuna: Zure osasuna asko hobetuko da.

Asteko eguna: Asteazkena.



ANIMALIEN BERTSOAK

ANIMALIEN SINFONIA



Animalia guztiak elkartu dira
musika tresna pila bat bilduta:
perkusiozkoa dute danborra,
haizezkoen artean, berriz turuta.

Kilkerra hegala igurtzen hasi,
eta tximuak eskatu du batuta.
Taldea zuzentzea erabaki du,
eztarria baitu marrantatuta.




Eltxoak jotzen du tronpeta,
urretxindorra hasi da kantuka,
pinguinoek txalo jo dute,
taldearen soinuarekin liluratuta.




Hementxe gelditu naiz ni
nire txokoan ezkutatuta,
baina denekin bat eginez,
akordeoiak lagunduta.

LUZEA, MOTZA




Luzea du lepaluzeak lepoa,
eta ezpata arrainak sudurra.
Luzea da sugearen gorputza
baita ere saltxitxa txakurra...



ASKO, GUTXI

Bazen behin txakur bat
"Asko" zuena izena.
Izen egokia zen,
jaten baitzuen den-dena.
Berdin jaten zuen saltxitxa,
edo hezurrik bikainena,
berdin jaten zuen txerri osoa,
edo zaldiaren herena.



Bazen behin foka bat
"Gutxi" izenekoa.
Ez zuen jaten ezer,
beti itxita ahoa.
Antxoarik ezetz,
ezta ere bakailaoa.
Gizajoa zegoen
ezin argalagoa.





ASMAKIZUNAK

Hegán egiten du, baina ez du hegorik.

Txistu jotzen du, baina ez du ahorik.

Askotan aurpegian jotzen zaitu,

Baina ez du eskurik.

Betaurrekoekin ere

Ez dago hura ikusterik.

Zitada dut mingarria,

eta txikia gorputza,

nik egindako jakia

hori bai kaki goxoa!

Adar batetik bestera

dabil salto-saltoka

platanoa eskuetan

ta zuri irribarreka.

Erantzuna: **haizea**

Erantzuna: **erlea**

Erantzuna: **tximinoa**

HIZKI-ZOPA

Aurkitu hizki-zopa honetan hamar animalia:

M	A	I	D	I	S	M	P	B	T
P	O	Z	E	Z	E	N	E	A	X
L	S	U	T	B	X	B	K	S	E
I	T	R	O	N	U	L	E	A	R
O	O	D	R	S	U	E	R	A	R
S	R	E	O	B	P	H	O	L	I
I	K	A	P	I	B	O	A	D	K
O	I	L	O	S	L	I	E	R	U
U	J	X	I	E	O	U	S	I	M
A	S	T	X	I	M	I	N	O	E

Erantzunak: zezen, lehoi, oilo, ahuntz, izurde, txerrikume, idia, tximino, otso eta uso.

etxebarriko euskaltegia

No te quedes atrás

Aurrea hartu



Maila guztiak

EGA

Hizkuntza eskakizunak

Guraso taldeak

Erretiratuak

BOGA

Ordenagailu bidezko autoikaskuntza

eta

Udalaren dirulaguntzak



Todos los niveles

EGA

Perfiles lingüísticos

Grupos de padres y madres

Jubilados/as

BOGA

Autoaprendizaje por ordenador

y

Con subvenciones del Ayuntamiento



**etxebarriko
EUSKALTEGIA**

Bekosolo parkea z/g

Etxe horia / Casa Amarilla

Tel/Fax 94 426 28 02

etxebarri@euskalnet.net



**YLIBARRI
EUSKALTEGIA**

Tel. 94 416 24 72